

Gerediaga Elkarteak Durangoko Azokan nobedade izandako 400 bat liburu eta argitalpen eman dizkio herriko liburutegiari

BILBO, 19 (EUROPA PRESS) Azken urteetan egin duen antzera, Gerediaga Elkarteak Durangoko udal liburutegiari Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan nobedade izan diren zenbait liburu eta beste argitalpenen dohaintza egin dio. Euskaraz argitaratuta edota euskal gaia jorratzen duten 400 argitalpen inguruko dohaintza izan da, eta Gerediaga Elkarteak Durangoko Udal Liburutegiari azken urteetan eman izan dizkion argitalpenei gehituko zaie. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan Gerediaga Elkarteak urteko nobedadeen bina ale jasotzen ditu parte hartzen duten argitaletxeen eskutik. Urte askotan aipatutako aleak Astolako egoitzan batzen ziren. Ale horretako bat Gerediaga Elkarteko "Nicolas Alzola-Bitaño" fondora pasatzen zen eta bigarrena birrezarpenetarako erabili izan da. 2001. urtean Gerediaga Elkarteko egoitzak horrenbeste liburu hartzeko zeukan leku falta tarteko, eta zuen lekua "Durangaldeko Dokumentategia" zerbitzuarentzat bideratzea egokiagoa zela iritzita, Durangoko udal liburutegiari ale bat emateko erabakia hartu zuen Gerediaga Elkarteak. Liburu hauek "Jose Luis Lete" fondoaren izenarekin eman izan dira dohaintzan, Jose Luis Lete Agirrezabal omentzeko. Gerediaga Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide izan zen eta 1980ko hamarkadaren hasieran Durangoko Azokaren berritzearen sustatzailea. 1987. urtean hil zen. Lehenengo alea Durangoko liburutegiari emanda, argitalpenen bigarren alea Durangaldea osatzen duten beste 12 udalerrietako udal liburutegien artean banatzen da. Gerediaga Elkartearen ekimen honi esker eskualdeko udal liburutegiek 5.200 euskal liburu jaso dituzte euren irakurleen gozamenerako.